

ESTATUTUETATIK AUTO-DETERMINAZIORA

Berriro entzun dugu egun hauetan: "Ez dugu inolaz ere ontzat emango Auto-Determinazioari buruz eztabaidatzea ere. Eta inoiz horretaranzko bidea hartzen baldin bada, Konstituzioak ematen digun indar armatua bera erabiliko dugu; bai kontsulta bera, bai beronen ondoriozko emaitzak oztopatzeko".

Gauzak garbi. Bagenekien. Baina are garbiago utzi dute egoera Espainiako agintari gorenak.

Alferrikako lana iruditzen zait, egia esan, ha- maika bidez azaldu eta errepikatu diren argudioak berriro gogoraztea.

Baina batzuen inoxokeriak mugarik ez izanik, laburki oroitaraziko dut espainiar legetasunaren barruan mugak non dauden.

1978ko Konstituzioaren 1.2. artikulua hau dio: *La soberanía nacional reside en el pueblo español*. Berau, "zati-ezina delarik". Nabarmen agertzen da hor "pueblo español" delakoa *bakarra dela: el pueblo español*.

Hizkuntzari buruz, berriz, eta ongi dakigunez. "El casatellano es la lengua oficial del Estado. Todos los españoles tienen el deber de conocerlo y el derecho de usarlo (art. 3). Baina guk euskaldunok ez dugu euskara ezagutu-beharrik, eta erabiltzeko eskubiderik ere ez.


España bat eta bakarra da, bestalde: *Todos los españoles tienen los mismos derechos y obligaciones en cualquier parte del territorio del Estado (art.138)*.

Idea nagusi honen froga bat izan dugu aste hauetan kotxean eta gainerako ibilgailuen matrikulen alorrean: eskualdearen arrastoak berak desagertu dira. Kokaleku bakarra *España da*. E eta kitto. Frantzian bertan baino haratako joan dira Aznar-tarrak.

Oso adierazgarria da, ildo beretik, 143. artikuluan legeztatuta dagoena: *En ningún caso se admitirá la federación de comunidades autónomas*.

Ez da oso zorrotza izan behar honen helburua antzemateko.

Alde batetik, gauza ezaguna baita Valèncian eta Uharte Balearreetan katalanez egiten dela (bertan hizkuntza ofiziala delarik). Eta bestetik, "Comunidad Autónoma Vascongada" eta Nafarroan ere, euskara dela bidea, egoera bertsua dagoelarik.



Txillardegí.

Lurraldetasunezko eskubideak oro, espreski daude debekaturik. Onartzen den bakarra (eta ongi dakigu zein neurritan) eskubide *personalak* dira.

Alegia: hizkuntza ahularen kontrakoak.

Besterik ez da esan behar espainiar legetasunaren barruan ez daukagula, eta ez dugula sekula izango, ez geure hizkuntzaren berreskurapena, eta ez Auto-Determinatzeko eskubidea.

Zer esan nahi du, beraz, buru-belarri eta jaitaste "que se cumpla el Estatuto en su integridad", eta bakea?

Zein Estatutu, bestalde?; bi baititugu, eta ez bat: Baskongadetakoa, batetik, eta Nafarroakoa bestetik.

Baina hau ahaztu egiten da, baita gure inguruan ere... Eta espainiar agintek gure gainean ezarri duen mozorroa egiten dugu geure!

Bistan da: Auto-Determinazioa eta Independentzia ez baitira biharko, ahal duguna egin behar-ko dugu artean. Honetaz ez dago zalantzarik.

Baina gure gaia *Autonomia bai / Autonomia* ez bihurtzen bada... ederra egin diagu, mutilak! Amua urdaileraino irentsia dugu.

Helburua *Auto-Determinazioa* da. Eta horretarako bidea, etsaiak ongi dakienez, *Lizarrar-Garaziren* arrapiztea eta sendoketa.

Horra hor kinka zail honetan garbi ageri den bakarra.

Jose Luis ALVAREZ ENPARANTZA, "Txillardegí"

UPVko irakasle emeritua